



memoria lekuak.



**Gerrikaitz eta Arbatzegi:
Aire eraso baten
ondorioz hildakoak**





**Gerrikaitz eta Arbatzegi:
Aire eraso baten
ondorioz hildakoak**



Goiz hasi zen 1937ko apirilaren 26a asko eta askorentzat. Bezperako zein aurreko egunetako gertaerek eta erasoek ez zuten inor ezustean harrapatu; egun hau iltzatuta geratu zen munitibartar bakoitzaren oroimen egutegian. Ezin ukatu oso latza izan zela. Estrategia militarretan kamuflatuta, ostenduta, eskrupulurik gabeko hilketak egin zituzten faxistek; herritarrak, deslai, ihesean. Edozer, edozeinen aurka.

Goizeko lehen ordutik eguerdira arte, 300 metroko altueran zihoa-zen faxisten hiru hegazkin-taldek erasotu zuten Munitibar. Bonbek eta metrailadoreen balek bidean aurkitu zuten guztia suntsitu zuten: zubiak, baserriak, ortuak eta errepideak, Munitibarko herritarrak eta gerratik ihesi zihozenak. Eraso horren ondorioz, Munitibarren 25 hildako eta beste horrenbeste zauritu izan zirela zerrendatu ahal izan dugu gaur gaurkoz.

Mugimendu nagusiak Munitibarren aurkako bonbardaketa baino bi egun lehenago hasi ziren, hilabete luzez egonkortuta iraun zuen gerra fronteak, 1937ko apirilaren 24an erasoari eutsi ezin eta ordura arte defendatutako hesia faxistek hautsi zutenean. Elgeta inguruan frontea apurtzean, gertuko sektoreetan eragin zuen bete-betean, eta ondorioz, hil ala biziko erabakiak hartu zituzten, bai borrokan ziharduten milizia-

no eta gudariak bai herritar zibilek. Eibarko sektorean zein Markinaldeko sektorea deiturikoan, domino fitxen ibileraren gisan, frontearen haustura eta ezinegona ziren nagusi jada.

Munitibarren aurkako aire erasoaren ondorioz hildakoekin gertatutakoak badu bere berezitasuna. Kontuan hartu behar da, 1937ko apirilaren 26ko goiz eta eguerdi arteko aire erasotik bi egunera sartu zirela tropa faxistak Munitibarren; eta, beraz, ordura arteko testuingurua erabat aldatu zela. Abagune honetan, hildakoekiko izandako jarrera berezia da; izan ere, herritarrek ezin izan zituzten senide eta lagunak hilerrian hobiratu, Justa Mendibe Artech, Motaune (Motaburuena) eta Isabel Elortza Etxaniz eibartarra izan ezik. Hegazkinek jaurtitako bonbek utzitako zuloetan edota ahal izan zuten lur sailetan hobiratu zituzten gaine-rako hildakoak. Hobiraketa horiek egin zituzten batzuen testigantzak jaso ahal izan ditugu: gaur gaurkoz Santos Artaetxebarria Bilbaok hildakoak hobiratzen jardun zuela baieztatu dezakegu; eta, horrek gertaera haiek ulertzeko eta argitze bidean jartzeko duen balioa mahai gainean jarri nahi genuke.

Liburuxka honetan aire erasoaren ondorioz hildako pertsonen informazioa eta memoria lekuak aurkitu dituzue eta guztia markatuta dagoen mapa bat ere bai.

1

Abade-etxeko ortuaren hobia

Herriko plaza ondoko umeen parkea dagoen lekuan zegoen abade-etxeko ortua. Hobi honek entzute handia izan du, eta horrela transmititu digute leku-koek testigantzak jasotzerakoan. Izan ere, herri erdian kokatzeaz gain, inguru horretan hilda geratu zirenak jaso ziren. Beharbada, ezaugarri nagusia da ihesean zihoazenak, errefuxiatuak edo une horretan noraezean Munitibarren babestu eta elizaren inguruan bonbardaketak harrapatu ondoren hil zirenen lurperatze gunea izatea.


Zubipean izkutatu ziren une hartan asko eta asko; baliteke, elizpeko babesle-kua gainezka egotean, inguruetan zirenek zubipea babesleku zelakoan hartu izatea. Bertan zirenak eztauden uhin hedakorren, metrailen edo arrazoi ezberdinen ondorioz hil ziren, haietako batzuk ia familia osoa.

Urteetara, 1947 inguruan, Abade-etxeko soroko hobia deshobiratu egin zuten. Horretarako, ugazabaren eskaeraren ondotik, Ostolaza-Larrinaga familiak ordaindutako soldatapean jardungo zuten lan taldea sortu zen.

Claudio Alzaa Bilbao (Zubialdeko "Txato", bonbardaketan hildako Matea Bilbaoren semea), Santos Artaetxebarria Bilbao, (Larrinaga zaharra, 1937an hildakoak hobiratzen jardun zuen), Antonio Gerrikabeitia Arriola, (Oloste, Hilerriko ehorzlea zena) eta Jazinto Basterretxea Zuberogoitia izango ziren Abade-etxeko soroan hobiratuta zeuden zazpi pertsonen gorpuzkinak deshobiratzeko lanetan.

Lanean edo gertatzen ari zenari erreparatu nahian, herritar gehiago ere han izan ziren, tartean Ezekiel Zenikazelaia. Gorpuzkin haiek, bizitzaren zoriz, urteetara berarekin senidetuko zitzaizkion, orduan ez baziren ere, aitaginarreba, amaginarreba eta koinata izan behar zutenen deshobiraketaren lekuko izan baitzen. Ezekiel, hildako familia haretako alabarekin ezkondukoen, eta familia osatuko zuten, Ermuan; alegia, Edune Ostolaza Larrinagaren senarra izango zen.

Deshobiratu ostean, Ostolaza-Larrinaga sendiak eraman zituen haien hiru senideen (Jose Maria Ostolaza, Emilia Larrinaga eta Julene Ostolaza) gorpuzkinak, eta Ermuko hilerri zaharrean lurperatu zituzten. Hobi horretan zeuden beste lau pertsonen gorpuzkinak, berriz, deshobiratu ostean, hilerrian lurperatu zituzten, senideek gastuei aurre egiteko zituzten zailtasunen aurrean.



Emilia Larrinaga Guenetxea

Mallabiko Saihetzanekue baserrikoa. Ermuan bizi zen, 30 urte, 1937/04/26an hila. Gerratik ihesi, Ermutik Gernikarako bidea hartu zuen familiarekin. Aire era-soek bete-bete harrapatu zituzten Munitibarren, eta Arbatzegiko plaza ondoko zubipean babestu ziren. Zubipea jendez lepo zegoela, bonba handi batek ez-tanda egin zuen zubi ondoan zegoen abade-etxearen ortuan. Emilia, Jose Mari Ostolaza bere senarra eta ha-

mabost hilabeteko alaba bertan hil zituzten. Hiru urteko Edurne alaba oso larri zauritu zuten. Familiako hiru hildakoak Arbatzegiko abade-etxeko ortuan bonba horrek eragindako zuloan lurperatu zituzten, beste lau pertsona edo gehiagorekin.



Jose Mari Ostolaza Sarasua

Mallabiko Barrengoa baserrikoa, Ermuan bizi zen, 31 urte, 1937/04/26an hila. Gerratik ihesi, Jose Mari Gernikarako bidea hartu zuen familiarekin, itsasoa igaro eta Frantzia helburu zutelarik. Aire erasoek bete-bete harrapatu zituzten Munitibarren, eta Arbatzegiko plaza ondoko zubipean babestu ziren. Zubipea jendez lepo zegoela, bonba handi batek ez-tanda egin zuen zubi ondoan zegoen abade-etxearen ortuan. Jose Mari, Emilia Larrinaga, emaztea eta hamabost hilabeteko

alaba bertan hil zituzten. Hiru urteko Edurne alaba oso larri zauritu zuten. Familiako hiru hildakoak abade-etxeko ortuan bonba horrek eragindako zuloan lurperatu zituzten, beste lau pertsona edo gehiagorekin.



Julene Ostolaza Larrinaga

Ermuan bizi zen, 15 hilabete zituen, 1937/04/26an hila. Gerratik ihesi, Gernikarako bidea hartu zuen familia-rekin. Aire erasoek bete-betean harrapatu zituzten Munitibarren, eta Arbatzegiko plaza ondoko zubipean babestu ziren. Zubipea jendez lepo zegoela, bonba handi batek eztanda egin zuen zubi ondoan zegoen abade-etxearen ortuan. Julene umea eta bere gurasoak bertan hil zituzten. Hiru urteko Edurne ahizpa oso larri zauritu zuten.



4 gorpu ezezagun



[ZAURITUA] Edurne Ostolaza Larrinaga

Ermuan jaio zen, eta hiru urte zituen aire erasoak pairatu zuenean. Arbatzegiko plaza ondoko zubipean babes-tuta zegoela, bonba handi baten eztandak gurasoak (Emilia Larrinaga Guenetxea, eta Jose Mari Ostolaza Sarasua) eta ahizpa (Julene Ostolaza Larrinaga) unean bertan hil zituen. Berak aurpegian izan zituen zauririk larrienak: metraila aurpegiaren alde batetik sartu, aho-tik pasatu eta besora arte iritsi zitzaion. Lekeitiotik eta

Gernikatik igaro ondoren, Bilboko Basurtuko ospitalean bizi-irauteko ebakuntza egin zioten. Harrezkero, beste bi ebakuntza izan zituen; azkena Franco hil zen egunean. Edurne Alejandra Lizundia Jaiorekin batera "Aleja" egon zen artatu zuten denbora osoan. 1937ko apirilaren 27an iritsi zen Basurtura, goizaldeko 03:00retan, seguruena Alejandra Lizundia Jaiorekin batera. Izan ere, biak ohe jarraietan kokatu zituzten: "Aleja" 19.ean eta Edurne 20.ean. Edurnek, 68 egun egin zituen ospitaleratuta, bakarrik, harik eta amamak eta izebak Edurne lokalizatu, ezagutu eta 1937ko uztailaren 6an etxera eraman zuten arte.



Umeen parkearen gaur eguneko argazkia

2

Andutza Behekoa: Isabel Elortza Etxaniz



Isabel Elorza Etxaniz Eibarren bizi zen. Familiarekin ihes egin eta Andutza Behekoan bizi izan ziren, erre-fuxiatu moduan.

Andutza Behekoa Lea ibilbidea erre-karen gainetik pasatzen den egurrezko pasarelatik eskuman erre-karen beste aldean ikusten den etxea da. Apirilaren 26an faxistek botatako bonba baten ondorioz etxe-ko ortuan hil zen; betondoan zauri txiki bat zuen.

Gerora aurkitutako argazki batean, bere izena daraman gurutze bat ageri da Munitibarko hilerrian. Hala ere, gorpua Munitibarko hilerritik lekualdatu zuten; izan ere, Eibarko familiaren panteoian hobiratuta dago. Isabelen izen-abizenak Bilboko Basurtuko sarrera eta irteeren liburuan erregistratuta agertzen dira; beraz, haren gorpua Basurtuko ospitalera eramana zuten aire erasoaren ostean.



Andutzako behekoa egurrezko pasarelatik ikusita



Bengolako hobia: Miliziano ezezaguna

Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak, Arbatzegi, Gerrikaitz zein inguruen aurkako bonbardaketaren 80. urteurrenaren kariatara 2012-2016 urte artean jasotako testigantzen ondoren, 2017an, Bengolako (Bengolea) soroan hobiratuta legokeen milizianoaren gorpuzkinak deshobiratzeko lanak egitea proposatu zion Munitibarko Udalari.


Horrela, Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak eta Munitibarko Udalak, elkar-lanean, 2017ko otsailaren 8an, Aranzadi Zientzia elkarteko lehendakari eta Antropologia Fisikoko lan taldeko arduradun Pako Etxeberriri eskatu zioten deshobiratzeko hasi aurreko lanak egin zitezela: “(...) Ondorioz, zera eskatzen dizugu, Munitibarko aire erasoaren 80. urteurrena beteko den 2017ko apirilaren 26rako Bengola errotaren eremuan aurreikusitako hobia zabaltzeko prospekzioa hasi eta tokiko lanketa guztia bukatuta izateko behar diren erabakiak hartu, gestioak egin eta pausoak ematea”.

Eskariak izandako erantzunak 2017ko maiatzaren 10ean izan zuen prestaketa guztien osteko lehen lur mugimendua. Aranzadiko Zientzia elkarteko kideak, hondeamakina txiki bat lagun, geruza ezberdinetan estalitako historia azalaratzen hasi ziren. Bengolako soroan, begiak lurpera finko zelarik, Bittor Irazabal Uribe . Berak, Bengolako Pilar Amesti Armaolearekin batera landu zituen soro horiek urte askoan; ondotxo zekien non eman behar zuen palakada hondeamakina txiki hark.

Esperotako emaitzik, baina, ezin izan zen jaso. Lekua zehatza izan arren, bali-teke urteen joanak zein Bengola Natur Energia Interpretazio Zentroa sortzeko 2009an egindako lanek eragina izatea hobian.



Deshobiratzeko lanaren argazkia 2017/05/10



1 Abade-etxeko ortuko hobia

2 Andutza behekoa

3 Bengolako hobia

4 Motaune

5 Zubialdeko hobia

 Botatako bonbak erori ziren lekuak

 Memoria lekuen ibilbidea

4

Motaune: Justa Mendibe Arteach

Justa Mendibe Arteach, Motaburu baserrikoa (Munitibar, Motaburuena), (1852/03/22 - 1937/04/26) 84 urte.

Etxe aurrean eroritako bonba batekin hil zuten Justa. Etxekoak baserriko kortan babestu ziren eta leherketak bete-betean harrapatu zituen, baina Justa sukaldean zegoen. Leherketa horretan bere iloba Maria Irusta Garrogerriketxebarriak hil edo biziko zauri larriak izan zituen, ordutik desagertuta dago, beste senide batzuk ere zauritu ziren. Etxeak kalte handiak izan zituen.

Heriotzaren egun berean lurperatu zuten Justa, herriko hilerrian, azken sakramentua jaso barik eta elizkizunik gabe; izan ere, herrian ziren abadeak ihes eginda, izkutatuta edo babestuta zeuden une horretan.



Motaune baserriaren gaur egungo irudia



Zubialdeko hobia

Gerrikaitz auzora doan zubiaren ondoan dagoen etxea da Zubialde. Lekukoen arabera, bonbardaketak toki honetan hil ez bazituen ere, etxe inguruan hil eta gorpuak jaso ondoren, etxe honetako baratzean hobiratu zituzten hildakoak.

Lurperatu zituzten eremua “malatierra” izendatu zuten eta bost edo sei pertsona lirakeke bertan hobiratuak.

Hobi hau Munitibarren aurkako aire erasotik hainbat urtera hustu zuten. Dirudienez, hobia abade-etxe hobia baino hilabete batzuk lehenago ireki eta deshobiratu zuten. Hemengo deshobiraketa lanek suspertuko zuten abade-etxe ortuko hobia irekitzea.



Matea Bilbao Jaio

Zubialdea baserrikoa (Munitibar). (1891/02/24 - 1937/04/26).

46 urte zituen, eta 1937-04-26an bere etxe ondora botatako bonba batez hil zuten. Matea Bilbao Jaio bere etxe ondoan eroritako bonba zulo batean lurperatu zuten, 1937ko apirilaren 28an.

Bere senarra, Jose Alzaa Bilbao, alkate izan zen 1933 hauteskundetatik aurrera. Bonifazio semea kartzelaratu egin zuten.



Angela Otaduy Gallastegi

Berriztarra, Zaldibarko Aranguren-erdiko baserrian bizi zen (1909/10/01 - 1937/04/26); 27 urte zituen. Gerratik ihesi, Gernikarako bidea hartu zuen lehengusu batekin. Bezperan (1937-04-25ean) iritsi zen Munitibarrera, eta Zubialdeko Matea Bilbaok hartu zuen etxean. Aire erasoetako alarma entzun ondoren babestu egin zen, baina eraso horren azken bonbardaketan, bonba baten

leherketak bete-betean harrapatu zuen; bertan hil zuten.



Pedro Intxausti Aboitiz

Errotakoa (Munitibar - Periko Errota) (1903/08/02 - 1937/04/26)

33 urte zituen. Etxe ostean bonba bat erori ondoren, Maria lehengusinarekin batera mendian babestea erabaki zuen; bat-batean, beste aire eraso bat izan zen, eta Basterrekoa inguruko zuhaitzian Pedro eta Maria ehiza hegazkin batetik tirokatu eta hil zituzten. 1931tik 1933ra Pedro izan zen Munitibarko alkatea; ogibidez

garraiolaria zen. Hilerrian lurperatzerik ez eta Zubialde ondoan eroritako bonba zulo batean lurperatu zuten, 1937ko apirilaren 28an. Berarekin batera beste lau edo bost lagun lurperatu zituzten “malatierra” izendatutako eremu horretan. Erregistro Zibileko agirietan, bere hainbat datu (adina esaterako) okerrak dira, nahasi edo aldatu egin baitzituzten.



Maria Intxausti Kareaga

Barakaldokoa. Errota ostean bonba erori ondoren, Pedro lehengusuarekin babestea erabaki eta aire eraso pairatzean Basterrekoa inguruko zuhaitzian Pedro eta Maria ehiza hegazkin batetik hil zituzten, metrailatuta. Mariaren aita Munitibarko Errotakoa zen, gaztetan mehatzetara lanera joana. Maria ezaguna zen herrian, uda guztietan oporraldia bertan igarotzen zuelako. Barakaldon bizitzea arrisku suagoa zelakoan,

Munitibarren babes hartu zuten gerra garaian. Mariaren hilotza, hilerrian lurperatu ezin eta, Zubialde baserri ondoan eroritako bonba zulo batean lurperatu zuten, 1937ko apirilaren 28an.



Miliziano ezezaguna



Baliteke beste pertsona bat (milizianoa) lurperatuta egotea



ZUBIALDE

Zubialde baserriaren gaur egungo irudia

Beste hildako batzuk

Maria Victoria Irusta Garrogerriketxebarria

Motaune baserrikoa (Munitibar, Motaburuena). (1924/01/06 – 1937/04/26an edo ondorengo egunetan) 13 urte zituen. Bere etxe aurrean eroritako bonba batek hil zuen Maria Victoria. Aitarekin baserriko kortan babestu zen, baina leherketak bete-betean harrapatu zituen. Bere amona Justa Mendibe Arteach leherketa horretan hil zuten, eta aita (Pedro Irusta) eta osaba bat zauritu zituzten. Maria Victoria larri zauritu zuten bonbardaketen hasieran, eta bere egoera hil edo bizikoa izanik, ospitale baterako bidean jarri zuten. Ateratzen ari ziren unean [12:30] bonbardaketen bigarren erasoa etorri zen, eta orduan familiakoak noraezean gelditu ziren; euren arrastoa galdu zuten. Harrezkero ez dute euren berririk izan. Hala ere, amak alabaren heriotza erregistatu zuen epez kanpoko prozedura baliatuz Munitibarko erregistroan, 1981eko azaroaren 8an. Mariaren ahizparen testigantza arabera (Maria Jesus Irusta Garrogerriketxebarria), familiak erreparazio ekonomikoa jaso zuen Alemaniatik.

Victor Markina Astarloa

Mallabiko Mallegoiko baserrikoa, 21 urte; Kirikiño batailoia abertzaleko lehenengo konpainiako gudaria. **Erretiradan zihoan batailoia, 1937-04-26an, Munitibartik eraman zuten anbulantzi militarrean.** Iluntzeko 20:00etan ailegatu zen Basurtuko (Bilbo) ospitaleko larrialdietara, eta han, metrailak bizkarrean, eskuinaldean eta eskapula azpian eragindako zauriek, enfisema eta hemoptisiarekin batera, heriotza eragin zioten ordubetera; 21:00etan hil zen. Alejandro Gil medikuari egokitu zitzaion gudari honen heriotza ere ospitaleko liburuetan izenpetzea; Bilboko hilerrian hobiratu zuten.

Alejo Ayerza Aristigieta

Amuategi batailoiko milizianoa. Gernika-Lumon hil zen.

Jose Cerio (desagertua)

Amuategi batailoiko milizianoa.

Damian Cubero Quintana

Bilbotarra, 38 urte, Intendentzia Militarra, Amuategi batailoiko milizianoa.

Calixto Gutierrez Lopez

Bilbotarra; gotorlekuen ardura zeukan.

Julio Lecumberri Sarasqueta

Eibartarra; 38 urte zituen, Gerrikaitzen hila.

Evaristo Recalde Zarate

Rebelion de la Sal batailoia, 1936/04/26. Ez dakigu non hil zen; Begoñan lurperatua.

Francisco Carmelo Saez Jimenez

22urte, Basurtun 30ean hil, Munitibarren zauritua. Bilboko hilerrian lurperatu zuten.

Francisco Unzueta (desagertua)

Amuategi batailoiko milizianoa.

Antonio Zuaznabar Mendizabal

Donostiarra, 33 urte, ezkondua, bi alaba, Intendentzia, arraindegien ardura. Amuategi batailoiko milizianoa.

Ezezaguna

Mintegi baserrian hil zuten Ibaizabal batailoiko gudaria, edo agian bi gudari (akaso bata Portugaletekoa edo Balmasedakoa).

Ezezaguna

Zubialden, Matea eta Angelaren ondoan hil zuten milizianoa.

Ezezaguna

Aransolo inguruan Etxebarriko Etxetxu baserrikoak errefuxiatuta zeudela, inguru haietan hil zen aipatutako emakumea.

Munitibarren zabaldu gabeko beste hobiak

Susaetako hobia

Baserriko lur sailean, Susaeta baserriko bihurgunetik metro batzuk beherago kokatuko litzateke miliziano ezezagunaren hobia; Munitibarreranzko norantz, ezker aldean. Hobiraketa hau non kokatzen den, lekukoek zehaztasunez adierazi zuten lekukotzak jasotzean (bihurgunearen lur ebaketa eusteko hormaren barrenean). Horrez gain, baina, deskribapena osatzen lagundu zuen Pastora Zenigaonaindiak, aire erasotik hilabetera hilotza bere begiez sastraka artean ikusi baitzuen. BI-2224 errepideko obrek, zabaltze eta hobe-kuntze lanek, zein estolderia egokitzeko obrek, edo eta eremua maldatsua izateak, hobia eralda zezaketen urte hauetan guztietan, eta ondorioz, kalte-tuta ere egon litekeela pentsatzera garamatza. Hala ere, eremua bere horretan dagoela esan genezake. Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak Aranzadi zientzia elkarteari hobi honen berri eman zion besteekin batera, 2017ko ekainean; ondorioz, deshobiraketarako aukerak bere horretan dira.

Kanterako hobia

Ez dago behar adina berri hobiraketa honen nondik norakoez. Maria Irusta Malleak entzuna duenez, eta hari erakutsi ziotenez, Kantera inguruetan hobiratze bat izan zen. Zoritxarrez argitu ezin izan arren, jasotzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Gauza bera gerta daiteke **Aransolo** baserrikoarekin: etxe honen inguruan hil omen zen neska bat bonbardaketa egunean. Testigantza batean jasota bada-go ere, ezin izan dugu kontrastatu, ez beste daturik argitu ahal izan. Baliteke, informazio hau aurrez aipatutako hildakoren batekin lotuta egotea.

Ahaztuen Oroimena 1936: Beste memoria ekimen interesgarri batzuk

Etxebarriko Memoria lekuak (Etxebarria - Bizkaia)

Memoria historiko kolektibo eta oso bat osatu nahian, Etxebarrian gerrak hil zituen herritarrak gogora ekarri, omendu eta haiei gertatutakoa transmititu nahi da “Memoria lekuak” ekimenarekin. Urteetako isiltasunari izen-abizenak eta lekuak jartzeko beharra mahaigaineratu nahi da.

Informazio liburuxka <https://labur.eus/etxebarria-memoria-lekuak>

Zelaietaburuko hobia (Etxebarria - Bizkaia)

1936ko irailaren azken egunetan, Zelaietaburu eta inguruetan faxistak geldiarazteko posizioetan borrokan jardun zuten gudari eta milizianoek. Bertan izandako borroken ondorioz, hil eta lubakian bertan hobiratutako hiru guda-riren gorputzkinak deshobiratu zituzten 2016an.

Informazio gehiago <https://labur.eus/zelaietaburu>

MX-2 | Zapolazpia bunkerra eta lubakiak (Markina-Xemein - Bizkaia)

1936ko gudan, Markinaldean eraikitako bigarren guda lerroko Zapola mendiko lubaki eta bunkerrak. Mendi txango gozagarri bat izateaz gain, gure historiaren berri jasotzera gonbidatzen gaituen jardura bat da.

Aurkezpen bideoa <https://labur.eus/zapolazpia>

MX-3 | Bunkerra eta hondakin arkeologikoak (Markina-Xemein - Bizkaia)

1936ko gerraren testuinguruan, defentsarako bigarren guda lerroa eraiki zuten. Iturretako Baldaburu inguruan eraikitako instalazioetatik zehar doan “MX-3 Iturreta. Baldaburuko bigarren guda lerroko memoria ibilbideak” garai hartakoa bertatik bertara ulertarazteko aukera ematen digu.

Informazio gehiago <https://labur.eus/baldaburu>





www.munitibar.org



ahaztuen
oroimena

www.ahaztuenoroimena.com

